


GERNIKA-LUMO
2019

# XVIII. IDAZLAN KOADERNOA

## Ipuin zoragarriak

Lehen Hezkuntza
GERNIKA-LUMO
2019

# XVIII. IDAZLAN KOADERNOA

**Ipuin zoragarriak**

**Lehen Hezkuntza**
**GERNIKA-LUMO**
2019


## edizioa

Argitaratzailea:
**• Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila**

Laguntzaileak:
**• Allende Salazar Ikastetxea**
**• Barrutia Eskualde Ikastetxea**
**• Mertzede Ikastetxea**
**• San Fidel Ikastola**
**• Seber Altube Ikastola**

Azalaren egilea:
**Uxue Martinez Artetxe**
(LH 4. mailako ikaslea)

Babesleak:
**• Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** (HPS)
**• Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila**
(Euskara Zuzendaritza)

Diseinua eta maketazioa:
**• 11barri**

Inprimaketa:
**• Lizaso Grafikak Zornotza**


## hitzaurrea

Mobil eta konputadora sasoian, ez gara konturatzen zein garrantzitsua den irakurketa eta idazketa erabiltzea komunikazio tresna bezala.

Aspaldion, garraiobideetan milaka telefono mugikor ikusten dira eta, ostera, paperezko liburu gutxi. Whatsapa tresna baliagarria da musu eta txalo xinpleak bialtzeko, esaldi laburrak egiteko… Benetan gure barru muineko gauzak azaldu gura ditugunean, pobre gelditzen jaku.

"Idazlan koadernoetako" protagonistek egin duzuen bezala, zeozer kontatu gura dozuenean, istorioren bat, sentimenduak azaldu, adiskidetasunaz aritu,…ezinbestekoa da idaztea, norberarentzat edo inorentzat izan. Horrek bai emoten dauala askatasuna!

Teknologiaren eskutik gizakiok aurrerabideari eutsi behar deutsagu, baina ahaztu barik papera, arkatza eta liburua direla esperientzia zoragarriak, bizipenak eta asmakizunak jantzi eta hornitzeko aukera emoten deuskuezanak.

Jakingo bazendue zein atsegina dan zuon ahaleginaren lekuko izatea…. Eskerrik asko!


Marisa Aldamizetxebarria
*Euskara zinegotzia*

## aurkibidea




# IDAZLAN KOADERNOAK 2019

**LHkoen IRAKURKETA EKITALDIA**
2019ko MAiATZAren 6an
GERNIKA-LUMOn •
LIZEO ANTZOKIAN, 11:00etan


| **IZENA** | maila | **IPUINA** | orr. |
|---|---|---|---|
| Jare Oñarte-Etxebarria Odriozola | L.H. 2. | ***Dragoi dantzaria*** | **7** |
| Enara Serna Goiriena | L.H. 2. | ***Paper zuria*** | **8** |
| Arai Goitia Malmasoro | L.H. 2. | ***Leire eta bere uhartea*** | **9** |
| Irati Zelaia Enbeita | L.H. 2. | ***Paula ilargian*** | **10** |
| Paule Ortiz Elizondo | L.H. 2. | ***Bi anai-arrebak*** | **12** |
| Arinka Kazanishyna | L.H. 2. | ***Zazpi petalo magiko*** | **14** |
| Anton Martinez Martija | L.H. 2. | ***Aneren ametsa*** | **15** |
| Egoitz Laguna Guijarro | L.H. 2. | ***Kapitain Kakatorra*** | **16** |
| Garazi Villegas Ramirez | L.H. 2. | ***Mundu majikoan*** | **18** |
| Aiala Olazar Velez | L.H. 2. | ***Mofetaren puzkerrak*** | **20** |
| Iosif Nita | L.H. 3. | ***Tximino galduaren oparia*** | **21** |
| Nora Torrealdai Alegria | L.H. 3. | ***Amonaren etxera*** | **23** |
| Aitor Madariaga Bermeosolo | L.H. 3. | ***Jon eta Mikel*** | **25** |
| Aimar Jaio Kortabitarte | L.H. 3. | ***Erleak Erlauntzan*** | **27** |
| Paule Omaetxebarria | L.H. 4. | ***Naiaren ametsa*** | **29** |
| Oihana Intxausti Ereño | L.H. 4. | ***Lagunik gabeko dragoia*** | **31** |
| Malen Bilbao Omabeiti | L.H. 4. | ***Gabon ezberdinak*** | **33** |
| Leizuri Guzman | L.H. 4. | ***Markel eta Txantxangorria*** | **35** |
| Sofia Aldekoa | L.H. 4. | ***Aberats tristea*** | **38** |
| Aines Urrutibeaskoa Urkieta | L.H. 4. | ***Arkatz kirolaria*** | **40** |
| Maddi Magunagoikoetxea Gezuraga | L.H. 5. | ***Animaliak libre*** | **42** |
| Unax Legarza Laka | L.H. 5. | ***Everest*** | **46** |
| Iraia Kobeaga Diaz | L.H. 5. | ***Puma bat euskal basoan*** | **48** |
| Uxue Calabia Gonzalez | L.H. 5. | ***Saskibaloia edo futbola*** | **51** |
| Aroa Malaxetxebarria Ojanguren | L.H. 6. | ***Bereziak eta ederrak*** | **54** |
| Maddi Gorostiaga Alzaga | L.H. 6. | ***Iparralderantz bidaia*** | **57** |
| Maialen Blanco | L.H. 6. | ***Lagunak*** | **60** |
| Julen Villegas Ramirez | L.H. 6. | ***Hawaiko altxorra*** | **63** |
| Naia Etxebarria Uria | L.H. 6. | ***Jostailuak*** | **66** |
| Irati Berridi | L.H. 6. | ***Agatha ordenagailuan harrapatuta*** | **68** |



Jare
Oñarte-Etxebarria Odriozola

«Lagunekin egotea da gehien gustatzen zaidana.
Nagusitan andereño izatea gustatuko litzaidake»

# Dragoi dantzaria

## DRAGOI DANTZARIA

Behin batean oso oso urruti zegoen Kobazulo handi, sakon eta ilun batean, dragoi handi eta beldurgarri bat bizi zen.
Aitor zen bere izena eta nahiz eta berrehun urte izan, oso gaztea zen oraindik. Aitor dragoi ederra zen, Kolore biziak zituen, sabel berdea, hego txiki eta indartsuak eta adar gogor eta horiak.
Aitor dragoi bakarra zen bere eskualdean, ez zuen ezagutzen beste dragoirik, baina, hala ere, pozik eta alai bizi zen. Aitor egunero joaten zen herrira eta herriko plazan zegoen dantzaleku txiki batera hurbiltzen zen eta bertan dantzan zeuden pertsonei berarekin dantzan egiteko eskatzen zien baina denek beldurrez alde egiten zioten.
Aitor bere Kobazulora oso triste itzultzen zen baina berriz joaten zen herrira dantzan egiteko asmoz. Egun baten, Aitorrek beste herri batera joatea erabaki zuen eta harriturik gelditu zen beste dragoi neska bat ikusi zuenean. lagun onak egin ziren eta biak dantzan egitea gustoko zutenez, bikote egin eta ondutik aurrera dantzan jarraitu zuten betirako.





Enara Serna Goiriena

«Niri lagunekin jolastea gustatzen zait»

# Paper zuria

Bazen behin Martina izeneko neskato bat. Martina oso pozik joaten zen ikastolara, baina oso lotsatia zen.

Marrazkiak egiteko orduan, bere laguntxoak kolorez betetzen zituzten beraien paperak, baina Martinarena beti zuri geratzen zen.

Hori dela eta, papera oso triste bizi zen.

Egun bat bai eta bestea ere bai, Martinaren papertxoa zuri geratzen zen... margotu gabe, hutsik...

Tristura hura jasan ezinik, egun batetan papertxo zuria negarrez hasi zen, negar eta negar, gelditu gabe.

Malkoak gero eta lodiagoak ziren eta pixkanaka-pixkanaka... papertxoa guztiz bustita geratu zen.

Martinak bere papertxoa begiratu zuenean eta hau bustita zegoela ikusi zuenean, ulertu zuen papera triste zegoela eta ez zela maitatua sentitzen.

Orduan Martinak margoak hartu eta papera kolorezlatzen hasi zen, mendi berdeak, loretxoak, laino urdinak... Kolorez apaindu zuen bere papera.



Zelako marrazki polita!!!

Orain papertxoa oso pozik bizi zen eta ordutik aurrera Martinak ez zuen inoiz margotu gabeko papertxorik utzi.

Enara Serna Goiriena.



Arai Goitia Malmasoro

«Abestea asko gustatzen zait»

# Leire eta bere uhartea

LEIRE ETA BERE UHARTEA

Bazen behin uharte txiki bat. Ez zuen inork erabiltzen. Leirek piraguan zihoala uharte bat ikusi zuen eta esan zuen:

- Hala uharte bat!!!! Niretzat.

Ordutik aurrera beti joaten zen uhartera. Halako batean, uhartea obrekin topatu zuen. Haserretu eta esan zuen:

- Utzi nire uhartea bakean!!
- Uharte hau ez du inork erabiltzen. - esan zuen gizonak.
- Itxaron! zuk nire uhartea bakean uzten baduzu eta trukean zuk nahi duzuna eskatu.
- Bale! eskatzen dut herri guztia etortzea gozatzera.

Leirek baietz esan eta herri guztiak ezagutu zuen Leireren uhartea. Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila Kalabazan eta irten dadila Barrutiko plazan.





L.H. 2. maila

## Irati Zelaia Enbeita

«Eskulanak egitea atsegin dut»

# Paula ilargian

PAULA ILARGIAN

Bazen behin Paula izeneko neska bat. Paulari asko gustatzen zitzaion misterioak argitzea. Gau batean zerura begira zegoela, ilargia ikusi zuen eta liluratuta gelditu zen, ain polita zen!
Berari begira, ainbat galdera burura etorri zitzaizkion: norbait bizi den, zelakoa den,... Zalantza guztiak argitzeko ilargira bidaiatzea bat egitea pentsatu zuen.
Espaziontzi bat eta jantzi egoki bat eraikitzen hasi zen.
Izugarrizko lana izan zuen, baina lortu zuen. Maleta prestatu zuen eta ilargira abiatu zen. Heldu da ilargia ikusteko eguna!!!
Denbora luze bat egin ondoren, ilargira heldu zen. Bapatean, ilargia mugitzen hasi zen eta gauza arraroak irteten hasi ziren.
AIENE!!! zertzuk dira ateratzen diren gauza horiek?



Estralurtarrak ziren!!
Oso txikiak eta berdeak ziren.
Hizkuntza ere arraroa zen.
Bapatean, haietako batek, nahigabe espaziontzia bota zuen ilargitik eta Paula ikaratu egin zen.

Aiene nola bueltatuko naiz orain etxera? esan zuen Paulak.

Estralurtarrak, hori entzun zutenean Paulari laguntza ematea pentsatu zuten.

Denen artean, espaziontzi berri bat eraikitzea pentsatu zuten. Eta horrela bueltatu zen Paula bere etxera.

Hurrengo goizean, esnatu zenean gertatu zitzaion guztia amets bat zela konturatu zen





Paule Ortiz Elizondo
«Kirola egitea gustatzen zait»

# Bi anai-arrebak

Bi anai-arrebak

Baziren behin ume bi. Basora joan ziren eta halako batean animalia polit bat aurkitu zuten. Ez zekiten txarra edo ona zenik eta etxera eraman zuten. Amak ez zien animalirik edukitzen uzten, baina ez zioten kasurik egin eta ezkutuan beraien logelan gorde egin zuten. Bat-batean animalia zaunka hasi zen eta bere aurretik topatzen zuen guztia apurtu zuen. Amak izugarrizko errieta egin zien eta animalia etxetik bota zuen. Umeak oso triste geratu ziren eta parkera joatea erabaki zuten. Parkerako bidean, kartel bat ikusi zuten, kartel horretan banika txapelketa bat egingo zela adierazten zen eta saria oso berezia zen. Orduan banika txapelketa horretan parte hartu zuten eta txakur bat irabazi zuten.

Amari txakurra polita iruditu zitzaion eta etxean edukitzen utzi zien.
Egia ala gezurra, gerizaren erdian hezurra.





Arinka Kazanishyna
«Dantzatzea eta margoztea gustatzen zait»

# Zazpi petalo magiko

ZAZPI PETALO MAGIKO

Bazen behin neska bat, Angela deitzen zen eta zazpi urte zituen. Egun batean, bere amak ogia erosteko esan zion, baina berak ez zion kasurik egin eta gozoki dendara joan zen. Bertan gozoki asko erosi zituen. Gero gozoki dendatik irten eta txakur bat aurkitu zuen. Txakurren beldur zenez, korrika irten eta galdu egin zen. Ondoren amona bat ikusi zuen eta berengana joan zen, bere etxea non dagoen galdetzeko.

Honek lore bat oparitu zion, zazpi petalo zituena. Magikoa zela esan zion. Lehenengoari jolasa eskatu zion. Bigarrenari telefono bat. Hirugarrenari gozoki bat, laugarrenari sokasaltoa, bosgarrenari panpina eta seigarrenari piruleta bat

Bere bidea jarraitu zuen eta konturatu zen petalo bakar bat geratzen zela. Orduan, parkean mutil bat ikusi zuen, hurbildu egin zen eta ea berarekin jolastu nahi zuen galdetu zion, baina mutilak ezin zuela esan zion, ezin zuelako ibili. Azkenik bere azken petaloa bera sendatzeko erabili zuen eta biak parkean jolastu ziren.





Anton Martinez Martija
«Handitan futbolaria izatea gustatuko litzaidake»

# Aneren ametsa

ANEREN AMETSA

Bazen behin Ane izeneko neskato bat.
Aneren ametsa ilargira joatea zen
eta horregatik bere aitari galdetu
zion:
-Aita zelan joan naiteke ilargira?
Eta aitak erantzun zion:
-Ene laztana zelako gauzak dituzun!
Oraindik gu ezin gara joan, bakarrik
astronautak ahal dute.
Ane oso triste jarri zen eta ohean
lo gelditu zen.
Hurrengo goizean oso pozik jaiki
zen. Aitari esan zion:
-Aita azkenean espaziora joatea
lortu dut!
-Baina Ane, zer arraio diozu?
-Ba amets zoragarri bat izan dut
eta espazioan zehar ibili
naiz gau osoan.
Hori egia bazan, barre-barre-eta zuk ere esan.





L.H. 2. maila

## Egoitz Laguna Guijarro

«Mutil jatorra eta alaia naiz. Dinosaurioak gustatzen zaizkit.
Handia naizenean, arkeologoa nahi dut izan»

# Kapitain Kakatorra

KAPITAIN KAKATORRA

Bazen behin Gernika ditturiko herri bat.
Bertan denak bakean bizi ziren.
Euskeraz hitz egiten zuten. Baina egun batean
Frankok herritarrei euskeraz hitz egiten entzun
zizkitten. Zirikatzen egoten zirela pentsatu zuen.
Orduan hegazkinak atera zituen etxeak, autoak, ...
herritarrak gustuko zuten guztia suntsi-
tzeko. Gernikako biztanle guztiak triste zeuden
ez zirelako seguru sentitzen. Momentu horretan
"Kapitain kakatorra" deituriko super heroi bat
agertu zen. Kakaz egindako bonbak bota zituen
hegazkin guztiak suntsitzeko. Behin suntsituta
Frankoren taldea joan egin zen. "Kapitain kakato-
rra" super heroiak Gernika lehen egon zen bezala
utzi zuen eta biztanle guztiak oso pozik bizi
ziren momentu horretatik aurrera. Amaiera



L.H. 2. maila



## Garazi Villegas Ramirez

«Igeri egitea gustatzen zait»

# Mundu majikoan

Mundu Majikoan

Bazikren lehin lau ume oso-oso lagunak. Beti elkarrekin
Zeuden, gelan, gimnasioan, patioan eta kalean. Egun batean
lanak amaitu zutenean beraien andereñoak liburu bat
irakurtzeko esan zien baina liburua zabaldu zutenean...
Puum! Mundu arraro batean agertu ziren. Umeak esnatu
zirenean animalia arraroak zeuden tamaina
ezberdinetakoak zuhaitzak eta kolore askotako loreak. Baso
polit batean zeuden. Bat-batean printzesa baten karraza
agertu zen hortik. Printzesa loreekin hitz egiten hasi zen
eta loreek erantzuten zioten! Loreek gertatukoa kontatu
zioten eta printzesa harrituta geratu zen. Umeengana
hurbildu eta nola heldu ziren leku horretara galdetu zien.
Umeek dena azaldu zioten. Printzesak maitagarriari deitu eta
umeak beren mundura bueltatzeko eskatu zion. Plisti plasta baten
ikastetxera bueltatu ziren

Ala bazan edo ez bazan sar dabila kalabazan eta irten dabila Gernikako plazan





Aiala Olazar Velez

«Neska alaia eta bihotz onekoa naiz. Lagunekin jolastea gustatzen zait. Handia naizenean, osagilea nahi dut izan»

# Mofetaren puzkerrak



MOFETAREN PUZKERRAK

Behin batean ohianean eskola bat egon zen.

Denak pozik joaten ziren Mofeta izan ezik. Ikaslei jaritzen zenean

puzkerrak botatzen zituenez, denak barre egiten ziaten eta

Mofetak, negarrez, alde egiten zuen beti.

Egun batean, gelakoak konturatu ziren ez zuela nahita egiten,

horregatik gelako guztiak zikin-zikin eginda joan ziren

Mofetak puzkerrak botatzean ez nabaritzeko. Handik aurrera

ikasle guztiak eskolara pozik joaten ziren beti.

Aiala 2-D

L.H. 3. maila



Iosif Nita

«Lagunekin futbolean aritzea gustatzen zait»

# Tximino galduaren oparia

TXIMINO GALDUAREN OPARIA

Behin batean, bazen sei seme-alaba zituen tximino familia handi bat. Beste tximino familia askorekin bizi ziren eta guztiak elkar laguntzen ziren beti.

Tximino amaren urtebetetzean, Tximino familia basora joan zen eguna ospatzera. Baina etxera joateko orduan, bost tximino seme-alaba zeuden bakarrik. Askotan zenbatu zuten arren, konturatu ziren tximino txikia falta zela.

Tximino amak, loreak zituen gustoko eta tximino txikia amarentzako lore polit baten bila zebilela, basoan galdu zen.

Azkenean, ilundu orduko, herriko tximino guztiek laguntzarekin, tximino txikia aurkitu zuten.

Tximino txikiak basoko lorerik politena zeukan eskuan, baina tximino amarentzat oparirik onena, bere seme txikitxoa ondo aurkitzea izan zen.

Bat, bi, hiru eta lau

bukatu da ipuin hau.





## Nora Torrealdai Alegria

«Niri, lagunekin eta saskibaloian jokatzea asko gustatzen zait»

# Amonaren etxera

AMONAREN ETXERA

Udako egun eguzkitsu batean, Enara oraindik lotan zegoen, eta esnatu zenean konturatu zen egun ederra egiten zuela. Gosaria hartu eta ideia bat burura etorri zitzaion: amona Paulinari bisita bat egitea. Garajeko atea ireki eta bere bizikleta urdina hartu eta ziztu bizian joan zen. Urrutian amonaren etxe zuria ikusi zuen eta bizikletaren txirrina jotzen hasi zen amonak entzuteko. Baina etxera iristean amona ez zegoen bertan. Enara triste jarri zen, eta itxarotea erabaki zuen. Agian erosketak egitera joango zen. Berandutzen ari zen eta Enarak etxera itzultzea erabaki zuen. Oso triste joan zen bidean amona ikusi gabe. Bero handia egiten du eta aldapa gora zihoan izerditan bere bizikletarekin.

Bidearen erdian gelditzea erabakitzen du, taberna batera joan eta baso bat ur freskoa edan eta hantxe kapela handi bat zuela buruan amona paulina aurkitzen du.

—Zer egiten duzu hemen, amona? galdetu zion pozik Enarak.
Zuregana nindoan marrubizko tarta zati handi bat eramatera.
Amonak erantzun zion:

—Bero egiten zuenez freskagarri bat edatera etorri naiz tabernara.
Enarak apur batez gelditzea pentsatu zuen, atseden pixka bat hartzeko.
Orain elkarrekin hartu dezakegu izozki bana eta eguna o pozarren bukatuko dugu.
Amona asko maite zaitut!





Aitor Madariaga Bermeosolo
«Nire lagunekin skate egitea gustatzen zait»

# Jon eta Mikel

JON ETA MIKEL

Bazen behin Barrutian Mikel izeneko mutil bat. Bera barrutik oso mutil ona zen, baina bere lagunak beti burlatzen zuten eta oso triste sentitzen zen. Etxera beti joaten zen negarrez eta amak esaten zion: "zer gertatzen zaizu? Eta berak erantzuten zion: "Ezer ere ez, ezer ere ez" Egun batean, Barrutira ikasle barri bat etorri zen, Jon deitzen zena. Irakasle batek mikelen alboan jesarri zuen, orduan berba egiten zuten, lagundu egiten ziren eta Jonek mikel defenditzen zuen. Arratsaldeatan beti joaten ziren mikelen baserrira. Mikelen baserriaren ondoan baso bat dagoelako eta horr basoan Kaseta bat hasi zirelako egiten. kaseta hori egiteko hiru aste eman zituzten eta horretarako egurra, Plastikoa eta beste material asko erabili zituzten. Ondoren, barruan jolasten ahal izateko mahai datorre bat eraiki zuten, egurrezko aulkiak eta baita Poliki alaindu ere. Lora Pilloa ipini zuten ikuskarriagoa izateko. Lore batzuk berdeak, beste batzuk gorriak eta zuriak ere. Harrezkero, gelako beste ikasleak Kasetaren istorioaz enteratu zirenez, Mikelen lagunak hasi ziren izaten, kasetan jolastea asko gustatzen zitzaielako eta hortik aurrera ez zuten mikel jaten. Geroztik mikel eta Jon oso pozik bizi ziren eta lagunik onenak izan ziren betirako. Eta holan bazan ebo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Barrutiko Plazan.


Mikel
Lagunak
Jon



Aimar Jaio Kortabitarte
«Eskupilota, futbola eta kitarra jotzea gustatzen zaizkit»

# Erleak Erlauntzan

## ERLEAK ERLAUNTZAN

Behin basarri batean Ainara eta Raul bizi ziren. Ainarak ile horia, koleta bat eta begi marroiak zeuzkan eta Raulek ile marroia eta begi marroiak zeuzkan.

Egun batean, Raulek bere ortuko arbola batean erlauntza bat ikusi zuen. Barruan erleak zeuden. Raulek esan zion Ainarari:

-Erlauntza kendu egin behar da.

Ainarak erantzun zion nahi zuena egiteko baina erle batek ziztatzen bazion berari ezer ez esateko.

Raul pentsatzen jarri zen, azkenean kaixaz estali zuen eta zulo bat egin zuen ordua, gero urez bete zuen erleek ez ziztatzeko. Erlauntza apurtu zuenean, erle guztiak atzetik jarraitu zioten. Erle batek ziztatu zuenean putzura salto egin zuen. Gero erleak erlauntza berria egiten hasi ziren.



Negua heldu zen eta erleak bere arzpira joan ziren. Erleen erregina erlauntzan lo zegoen. Raulek eskailera jarri zuen eta erlauntzaren barrura begiratu zuen eta ikusi zuen erregina lo zegoela. Gero ideia bat euki zuen, suhiltzaileei deitzea. Suhiltzaileak etorri ziren eta erlauntza eta erregina eraman zituzten.

Udaberria heldu zen. Erleak ez zuten erregina ez erlauntza ikusi. Ondotik joan egin ziren erregina berri bat aurkitzera.

Raul eta Ainara berriz ere trankil bizi izan ziren.

L.H. 4. maila



Paule Omaetxebarria

«Kirola eta dantza egitea gustatzen zait»

# Naiaren ametsa

## NAIAREN AMETSA

Bazen behin neska bat oso alaia Naia deitzen zena, 18 urte zituen eta azkenengo urtea zuen institutoan. Txikitatik hasi zen abesten eta dantza egitea betidanik gustatu izan zaio. Jolastokian kalera atera zen eta bere abeslari gogokoenaren kartel bat egon zen, telesai bat egiteko. Naiak argi zuen zer egin. Ez zuena argi nola joango zen kastingera eta ea denbora zuen grabatzeko izan zen. Lehenengo, zuzendariari galdetu zion:



—Zuzendari jauna utziko didazu...—

Zuzendariak altu esan zuen:

—Ez!—

Naiak ahal zuen dena egin zuen eta zuzendaria sutan zegoela esan zion:

—Ez! Ez duzu ulertzen abestea lelokeria bat dela, zakar zati bat ere ez duzu ulertzen, zoratuta zaudela!—

Naia negarrez joan zen korrika, eta beste plan bat zuen. Jolastoki orduan kastingera joatea. Hiru egun barru zen, egun berezi hura heldu zenean lasai egon zen, baina kriston maila egon zela konturatu zenean

izerdia jausten zitzaion bekokitik, saltoak ematen egon zen, besoari eragiten zion, komunera joateko gogoa zuen eta behin baino gehiagotan esan zioten isiltzeko. Naiaren izena esan zutenean aho zabalik geratu zen bere idoloa ikusi zuenean. Abestu zuen, dantzatu zuen, ondo gainera, baina beti ezin da irabazi eta galdu egin zuen, 5. postuan geratu zen. Naia korrika joan zen institutora, sarreran zuzendariarekin topo egin zuen, baina, Naiak bihotza erditik zuen apurtuta, eta paso egin zuen. Oso txarto joan ziren notak eta megafonotik deitu zuen zuzendariak. Naia zuzendariarengana joan zen, eta zuzendariak bideo bat erakutsi zion bera gaztetan abesten eta dantza egiten. Naia aho zabalik geratu zen eta zuzendariak esan zion:

— Naia, sentitzen dut, enbidia dudalako da, kastinga egiten ikusi zaitut eta primeran egin duzu, eta horregaitik zu izango zara kurtso amaierako protagonista, eta SEGI ZURE AMETSEN ATZETIK —.

Naia inoiz baino pozago zegoen, mila aldiz errepasatu zuen abestia eta koreografia inoiz baino hobeto sentitu zen. Naiaren abeslari gogokoena han zegoenez onartu egin zuten bere telesairako.



Oihana Intxausti Ereño

«Marraztea eta saskibaloian jokatzea asko gustatzen zaizkit»

# Lagunik gabeko dragoia

## LAGUNIK GABEKO DRAGOIA

Bazen behin txinako kobazulo batean Dragoi handi handi bat. Bere begiak erraldoiak ziren eta buztana ere. Jendea kobazulotik pasatzen zenean Dragoia agertzen zen eta jendea beldurrez korrika urruntzen zen. Dragoia triste zegoen bakarrik bizi zelako.

Egunak joan eta egunak etorri kobazulora gero eta jende gutxiago hurbiltzen zen.

-Zergatik nago bakarrik? Galdetzen zuen dragoiak.

-Badakit, herrira joango naiz.

Dragoia herrira heldu eta herritarak beldurrez etxera sartu ziren. Kale denak utzik gelditu ziren. Dragoia triste zegoen. Bapatean ume bat agertu zen.

-Nor zara zu? Aaa! Lagundu! Esan zuen umeak.

-Ez, egon lasai, beldurra ematen dut baina ez naiz txarra. Egun hartatik aurrera dragoia eta umea lagun onak izan ziren. Umearen lagunak oraindik beldur ziren baina umeak erakutsi zien ez zela eurek pentsatzen zutelakoa. Umea eta bere lagunak dragoiaren gana joan ziren.



Dragoiak orduan: Kaixo, badakit beldurra ematen dudala, baina barrutik ona naiz.

Aste bat pasatu ondoren...

-Herritarrei esan behar diegu dragoia nolakoa den. Esan zuen umeak. Horretarako umea eta bere lagunak herritarrei azaltzen hasi ziren. Herritarrek ulertu zuten eta barkamena eskatu nahian herritar guztiak dragoiaren kobazulora joan ziren. Dragoiak irribarre egin zuen eta gauza guztiak entzun eta gero:

-Eskerrik asko! esan zuen. Dragoia eta herritarrak pozik bizi ziren.





## Malen Bilbao Omabeiti

«Dantza eta kantatzea gustatzen zait»

# Gabon ezberdinak

Abenduaren 23an, Foru herriko Torre Barri auzoko familia bat gabonak ospatzen hasi zen.

Liza, alaba, altxatu zen lehenik ohetik eta bere anaia Amets esnatu zuen eta esan zion:

zergaitik esnatu nauzu?.

Baina orduan gabon eguna zela konturatu zen. Biak, ama eta aitari esnatzera joan ziren. Ama gosaria prestatzera eta aita arropak jartzen hasi ziren.



Gero kampora joan eta orduan Lizak lurrean gutun bat ikusi zuen.

Gutunak hau esaten zuen:

AURTENGO GABONETAN EZ DUZUE OPARIRIK IZANGO GAIXORIK NAGOELAKO.

Olentzero.

Orduan Liza korrika etxera joan zen.
Amak nora zihoan galdetu zion eta
Lizak etxera zihoala esan zion. Bere
gelako mahaian gutuna utzi eta Olentze-
roren etxera joan zen. Lizak Olentze-
rari sopa bero goxo bat prestatu eta
Olentzero osatzen hasi zen.

Gauez opariak Lizak
banatu zituen.

Hurrengo egunean
gutun bat heldu
zitzaion Lizari.
Gutunak hau esaten
zuen:



ASKO LAGUNDU DIDAZU, HORREGATIK
SORPRESA BAT DUT. Olentzero

Liza opariak ikusi eta oso pozik jarri zen
baina, batez ere, pozik zegoen bere herriko
neska-mutil guztiak ere, opariak zituztelako
berari esker.

L.H. 4. maila



Leizuri Guzman

«Irakurtzea eta gitarra jotzea gustoko ditut»

# Markel eta Txantxangorria

MARKEL ETA TXANTXANGORRIA



Gernikako auzo txiki batean, Markel izeneko mutila bizi zen bere txakur txikiarekin. Tara, txakurkumea zen. Ilea luze zamarra zeukan. Begiak, aldiz, marroi-marroiak eta egunero paseotxoak ematen zituen.

Egun eguzkitsu batean, Oka ibaiaren ertzetik zihoazela, Pum-Pum! entzun zen. Korrikan, lau hankatan, ihes egin zuen. Hau ikustean, Markel deika hasi zitzaion:

– Tara, Tara! zatoz hona!

Alferrik zen. Orduan, etxerantz abiatu zen.

Etxera iritsi zenean, negar malkoak ugariak ziren.

Behin eta berriz oihukatzen zuen:

—Zer egin dezaket?

—Non zaude, laztantxo?

Lasaitu zenean, karteltxoa idaztea erabaki zuen:




Kaleetatik zehar jarri ondoren, eguneroko ibilbidetxoa egitera abiatu zen. Bat-batean, belartzan zaunkak entzun ziren.

Ixil-ixilean hurbildu zenean, etzanda aurkitu zuen. Tara maitea esan zionean, buztanik ezin zuen astindu baina ipurtalde osoa mugitzen zitzaion.

—Hau poza! oihukatu zuen.

Ondoan, txio-txioka zegoen papar gorridun txoritxoa zegoen. Txantxangorria zen. Antza zenez, ehiztarien tiroen ondorioz zauritua. Esku artean hartuz, salto-saltoka etxerantz abiatu zen.

Egunez egun zaintzen zuten eta azkenean, ahaleginaren ahaleginez, lortu zuten bere bizitza salbatzea. Geroztik aurrera, euskararen ikur bihurtu zen, guretion esfortsu eta ahaleginekin euskara ere, salbatuko dugulako. Beraz, euskaraz hitz egin dezagun, bestela gure hizkuntza galdu egingo da.



L.H. 4. maila



Sofia Aldekoa

«Igeri egitea gustatzen zait»

# Aberats tristea

Baziren behin Jon eta Jokin deitzen ziren bi ume. Jokin etxe zakar eta txiki batean bizi zen. Diru gutxi zuten baina lagun asko zituen eta oso pozik bizi zen. Alboko herrian Jon bizi zen. Jon etxe berri eta handi batean bizi zen. Gurasoek nahi zuen guztia ematen zioten baina nahi zuen guztia edukita ere oso triste bizi zen. Egun batean Jon ibiltzen atera zen eta konturatu gabe alboko herrian amaitu zuen galduta. Bertan Jokin ezagutu zuen eta lagun minak egin ziren. Orduan Jokinek bere etxera gonbidatu zuen Jon b egitera. Etxean sartzerakoan harrituta geratu zen etxea txikia eta zikina zelako baina oso giro ona zegoelako.

Jokinen ama eta aita banagabezian zeuden baina asko maitatzen zuten elkar. Jon aste osoa egon zen berarekin bizitzen eta konturatu zen bere bizitzan atal garrantzitsuena falta zela: maitasuna. Egun batzuk igaro ondoren, etxera joateko ordua zela pentsatu zuen Jonek. Jokin eta bere familia agurtu eta etxera joateko bidea hartu zuen. Etxera heldu zenean bere aita aurkitu zuen oso kezkaturik. Orduan biak elkar besarkatu zuten eta hortik aurrera oso pozik bizi izan ziren. Ez ahaztu garrantzitsuena maitasuna dela.





Aines Urrutibeaskoa Urkieta

«Lagunekin jolastea eta kirola egitea gogoko ditut»

# Arkatz kirolaria

ARKATZ KIROLARIA

Bazen behin, Rufus izeneko arkatz alai bat; mina zorrotza eta grisa zeukan, kanpotik hori-beltza zen eta nahiko argala eta luzea. Idazteko eta marrazteko arkatza zen, bere ikasgai gogokoenak hizkuntza eta matematikak ziren, baina hala eta guztiz ere, gogotsu egiten zituen beste ikasgaietako lanak ere, idazlanak, ipuinak, ingeleseko ariketak eta abar...

Urte horretan, Rufus, Laila, pencil eta crayon arkatzek 5. mailan egingo zuten lan. Poto gorri baten sartuta, prest zeuden lanari ekiteko. Rufus oso azkarra eta irudimen handiko arkatza zen. Jolasteko momentua heltzen zenean, errekreoan jolasten zeuden umeei jelosko begiratzen zien, bere burua kirolari trebetzat zuen eta zeamorru ematen zion futbolak, saskibaloiak, ping-pong-ak...

Ikasturtea amaitzerakoan, kirolari gogor ekin behar ziola amesten zuen, eta buru belarri aritu zen lanean udako oporraldia lasai igarotzeko asmotan.

Uda heldu zen eta lan gogorra egin ondoren, bai umeek eta bai arkatzek, nota onekin gainditu zuten ikasturtea. Denek merezitako oporrak izan zituzten, baita Rufusek ere; bere familia eta lagunak agurtu ondoren, furgoneta txiki batean, Zarautzera bidaiatzera erabaki zuen.

Bere ametsa egia bihurtu zen, uda osoa futbolean, korrikan, igerian eta surfean igaro zuen eta. Surflari trebea izanda, udari amaiera emateko jaialdian antolatu zuten surf txapelketan, parte hartu eta irabazi egin zuen; saria gozokiz egindako bizikleta bat izan zen. Rufus pozik bueltatu zen eskolara, oraingoan 6. mailara, bere bizikleta berriarekin negu osoan kirola egiteko ilusioz beteta.







Maddi Magunagoikoetxea Gezuraga

«Nire kirolik gogokoena saskibaloia da»

# Animaliak libre

Baziren behin Nekane eta Nohia, oso lagunak ziren.

Inoiz ez ziren haserretzen elkarrengandik urrundu ere.

Dena euren eskolan hasi zen. Nekane bakarrik zegoen denbora guztian, Nohia etorri arte. Nohia berria zen gelan eta elkar ikusi zirenean hitz egiten hasi ziren,

- Kaixo ni Nohia naiz eta zu?

- Kaixo ni Nekane naiz - erantzun zion.

Nohiak barretxo bat eginez galdetu zion:

- Nire laguna izan nahi duzu?

- Bai noski!! - erantzun zion nekanek




Geroztik ez dira banatu. Orain 10 urte dituzte eta LH 5B mailan daude biak Seber Altube ikastolan. Nekane oso neska zintzoa eta lotsatia da. Begi urdin argiak

ditu eta ilea marroi argi kolorekoa. Bere adinerako oso neska garaia da denek gora begiratu behar izaten diote eta lotsatu egiten da.

Guzti hau gutxi balitz, gainera oraindela gutxi betaurrekoak jarri dizkiote. Bere etxea ikastolatik urruti egon arren Nahiarekin geratzen da batera joateko.

Nahia berriz, oso neska alaia, zintzoa eta berbatia da. Begi berde argiak ditu eta ile horixka. Nahiari asko gustatzen zaizkio ere guztietako animaliak.

Goizeko 8:30 ziren. Beti bezala Nekane, Nahiaren etxe azpian zegoen bere zain. Nahia jaitsi zenean, ikastolarantz abiatu ziren. Eguraldi lainotsua zegoen eta euria hastear zegoen. Bidean zihoazela konturatu ziren txakur kume bat atzetik jarraitzen ari zitzaiela ea bide guztian.

Nahiari arraro egiten zitzaion txakurraren jokaera, horregatik, bere pentsamenduetan sarturik, txakurra behatzen aritu zen, konturatu zenerarte txakurrak zerbait esan nahi ziola.



-Zergatik ez diogu txakur kumeari jarraitzen?-mintzatu zen Nahia ahots ozenez

-Nahia,nola jarraituko diogu?Berandu iritsiko gara eta!-erantzun zion Nekanek.

Baina berriro pentsatu eta iritzia aldatu zuen:

-Ongi da,zuk esaten baduzu...!Nola ez dizut kasurik egingo? Lagun oso onak baikara eta lagunak laguntzeko daud!

Goazen txakurra jarraitzera!!

Nahiak txakurrak zerbait esan nahi ziola antzeman zuenetik orduak ibili ziren euritan blai.Bapatean txakurra geldituegin zen,begirada altxatu eta txakurtegi zahar eta zikin batera heldu ziren.Barruan,txakur negar ohiuak entzuten ziren.

Nekane eta Nahia txakurtegiko leihora hurbildu eta ehundako txakur ikusi zituzten arazo larrian.

-zerbait egin behar dugu! -esan zuen Nekanek.

Txakurtegiko atea itxita zegoen.

Baina, hola edo hala, ateko giltza lortu behar zuten. Biak plan bat pentsatzeari ekin zioten. Orduan Nekanek esan zuen:

- Badakit! Jabearen arreta desbideratzea eta bitartean txakurtegiko giltzak lapurtzea lortu behar dugu!

Nahiak jabearen arretaz arduratzea erabaki zuen, Nekanek berriz giltza hartuko zuen, bere altuerak horretan lagunduko baitzion.

Plana, beraiek pentsatu bezala atera zen eta txakurrak askatzea lortu zuten. Biak oso harro zeuden egin-dakoarekin, nahiz eta berandu iritsi ikastolara.

Eta guauguau, guau

nire ipuina izan da hau!

L.H. 5. maila



Unax Legarza Laka

«Arrauna dut gustuko»

# Everest

Iñaki Euskal Herrikoa da eta asko gustatzen zaio mendira igotea. Jesus Espainian bizi da, berari ere gustatzen zaio mendira joatea.

Orain dela 18 urte Iñakik esan zion Jesusi ea Everestera joango ziren biak batera. Gabonetako oparrak aprobetxatuz Everestera joan ziren elkarrekin.

Lehenengo egunean, gora igotzen hasi ziren eta lehenengo kanpamentura igo ziren problemarik gabe. Bertan lo egin zuten eta hurrengoko egunean, gosaldu egin zuten. Gosaldu eta gero, motxila prestatu zuten biek eta gorantz joan ziren. Iñaki pozik egon zen ondo ibili zirelako baina Jesus nekatuta egon zen. Hala ere, bigarren kanpamentura heldu ziren. Bi egun egin zituzten bigarren kanpamentuan elur asko egin zuelako. Hurrengo egunean mendian gora igotzen hasi ziren. Jesus aurretik joan zen. Elur jauzi bat egon zen eta Jesus harrapatuta geldituk

zen. Iñaki laguntza eskatzen joan zen behera. Ordu bat beranduago helikopteroa etorri zen Jesusen bila, denak egon ziren Jesus topatzen, txakur eta guzti. Iñaki ardurastuta eta oso triste egon zen, pentsatzen zuelako hilda egongo zela.

Ordu batzuk geroago Jesus onik aurkitu zuten, baina hotza zuen. Jesus ospitalera eraman zuten eta Iñakik gorantz segitu zuen, gailurrera iritsi arte. Iñaki beranduago igo zen, goian egon zen eta argazki batzuk atera zituen

Bitartean, Jesus ospitalean egon zen, pixkanaka berogailu ondora joan zen eta bertan berotu egin zen. Egun batzuk geroago Iñaki beherantz joan zen eta bertan kazetari piloa egon ziren berari itxaroten. Iñaki telebistan agertu zen eta famatu bihurtu zen.





## Iraia Kobeaga Diaz

«Zaldian ibiltzea gustuko dut»

# Puma bat euskal basoan

PUMA BAT EUSKAL BASOAN



Bazen behin, Jalen izeneko neskatila bat. Hamar urte zituen, 6. mailako ikasle jatorra. Altua, argala eta begi urdindun neskatila argia eta kirol zalea zen, igeriketa, pilota eta zaldian ibiltzea gustuko bait zituen.

Eskolatik irten eta egunero zuen kanpoko ekintzaren bat egiteka. Asteazkenero hipika zuen. Baten, beti bezala zaldi-eskolako arbelera hurbildu zenean, zein zaldi tokatzen zitzaion ikusteko... Ederki!!! -ohiukatu zuen- salto bat emanez, gustukoen zaldian ibiltzeko baitzen Euba, aspaldian sueltatu ez zitzaiona.

Egun hartan, alboko mendi batera ibilbidetxoa programatuta zegoen, eta hala egin zuten. Arratsaldeko bostak ziren. Udaberriko egun zoragarria. Txoriak kanta-kantari entzuten ziren zuhaitzez zuhaitz. Eguzki izpiak keinuka adarrak zeharkatzen, eta ingurua hobezin horretan, sei lagun zaldi gainean zamalkatzen. Normalki, basotik pizti asko zebilen: azeriak, basakatuak,... baina azken aldian ez ziren ikusten, maisuak esan zuenaren arabera.

Bat-batean, lasai-lasai zihoazela, zuhaitzetik animalia handi batek salto egin eta Eubaren ondora erori zen. Zaldia, ikararen ikaraz zoraldatu, irrintzika eta saltoka hasi, Jalen behera bota eta aurre egin zion.
Puma bat zen! Hura egoera larria! Basotik piztiarik ez ikustearen arrazoia!
Hilabete batzuk atzerago, egunkarietan agertu zen, Madrileko zootik, puma batek ihes egin zuela, eta alarma guztiak piztuta zeudela.
Animaliarik arinetarikoa dela jakinda, ez da harritzekoa horrenbeste Km egitea.
Jalenek, begiak zabaldu zituenean, ikusi zituen kide batzuk bere inguruan, eta Euba lurrean etzanda, zaurituta, hiltzorian.

Bizkortu eta berehala, gogoratu zuen, sakelean telefonoa zuela. Atera eta 112ra deitu zuen, gertatutakoa eta kokapena azalduz.

Ordu erdi beranduago, ertzaintzako patruila-autoak, anbulantzia eta kamioi bi, batek kaiola erraldoi batekin gerturatu ziren, sorospena ematen. Medikua eta erizaina Jalenengana hurbildu ziren. Albaitari bi, Euba



sorosten joan ziren zuzenean eta beste albaitari bat eta basozain bi eskopeta-dardoekin, basotik zehar galdu

Ziren berehala, puma kaiolatu nahian.
Jalen hospitalera eraman eta Euba zaldi eskolara.
Beharrezko azterketak egin ondoren, Jalen etxera bidali zuten eta
Euba, aldiz, luzerako zuela esan zuten, egoera larrian egon baitzen.
Geroztik, Jalen eta Eubaren arteko harremana estutu zen, egunero
bisitatu zuelako, zutik jarri zen arte.
Puma kaiolatzea lortu eta berriro zoologikora eraman zuten, eta
lasaitasuna berreskuratu zen baso hartan.





Uxue Calabia Gonzalez

«Nire ametsa dantzaria izatea da»

# Saskibaloia edo futbola

## SASKIBALOIA EDO FUTBOLA

Bazen behin, Anne izeneko neska bat. Ile marroia zeukan eta begi berde-berdeak zituen, belarra bezain berdeak. Berari, mutilek egiten zituzten gauzak gustatzen zitzaizkion, adibidez, futbola. Beti joaten zen futbol partiduak ikustera, eta bere etxeko loradegian ere jolasten zuen. Egun batean, futbol entrenamendua ikustera joan zen eta asko gustatu zitzaion. Etxera itzuli zenean, bere amari esan zion futbolean apuntatzeko, eta bere amak baietz erantzun zion. Hurrengo egunean, eskolatik irten eta gero, futbol entrenamendura joan zen. Mutilek hau esan zioten:

-Neska zara, ezin duzu futbolean jolastu!!!

Anneri, berdin zion mutilek hori esatea eta entrenatzen jarraitu zuen. Egun bat igaro ondoren, berriz, entrenamendura joan zen. Heldu zenean, han zeuden mutil guztiak atean Anne itxaroten.

-Ezin izango duzu entrenatu - esan zioten mutilek.

-Zergatik? - galdetu zuen Annek.

-Zerrendan ez zaudelako!!! - mutilek.

Annek zerrenda begiratu zuen. Egia zen, ez zegoen apuntatuta. Anne, negarrez joan zen etxera. Amak, saskibaloian apuntatu zuen. Hurrengo egunean, Anne saskibaloira joan, baina ez zitzaion gustatu entrenamendua.

Saskibaloiko neskek, bazekiten futbola gustatzen zitzaiola eta ez saskibaloia. Anneren lagunik onena, Miren, saskibaloi taldekoa zen. Mirenek, taldeari esan zion, zerbait egin behar zutela, Anne, futbol taldean sartzeko. Protestatzea erabaki zuten. Hurrengo egunean, futbol zelaira joan ziren, eta han zeuden mutilak.

-Anneri taldean sartzen utzi behar diozue! -adierazi zuen batek.

Edo bestela poliziari deituko diot! -esan zuen beste batek.

Baina ez zuten kasurik egin. Hurrengo goizean, eskolara joan zirenean, Mirenek eta bere lagunek zuzendariarekin hitz egin zuten eta eskola osoa, Anneren alde zegoen. Anne oso pozik jarri zen. Egunero-egunero entrenatzen zuen etxean, baloiarekin paseak egiten zituen, beti korrika egitera ateratzen zen kalera eta azkenean, porteria bat oparitu zioten lorategian jartzeko. Egun batean, eskolako ikasle eta irakasle guztiekin geratu zen.

Futbol zelaira joan ziren eta protestaka hasi ziren.

-Utzi Anneri taldean sartzen -esan zuen irakasle batek.

-Utzi Anneri futbol taldean sartzen, edo bestela eskolatik botako zaituztet!!! -esan zuen eskolako zuzendariak.

Mutilak harrituta gelditu ziren Annek zeukan laguntzarekin. Azkenean Anneri taldean sartzen utzi zioten. Heldu zen final handiko eguna. Annerengaitik izan ez balitz, ez zuten irabaziko. Anne oso pozik egon zen futbol taldearekin jokatzen.



L.H. 6. maila



# Aroa Malaxetxebarria Ojanguren

«Niri saskibaloia eta bidaiatzea gustatzen zait»

# Bereziak eta ederrak

Ez dut ulertzen zergatik gertatzen diren holako gauzak, edozein ikastolatan, edozein herritan.... Julen izeneko mutil baten istorioa kontatuko dizuet.

Julen, 12 urteko mutiko bat zen eta oso pertsona alaia.

Berak ez zuen argi zein zen bere identitatea. Batzuetan neska sentitzen zen eta, beste batzuetan, mutila.

Etxean zegoenean oso zoriontsua zen askatasunez bizi zelako. Bere gela neskena bezalakoa zen. Hormak larrosak ziren, panpinak, makilajea, minigonak, soinekoak eta peluka bat ere bazuen. Bere gurasoek asko maitatzen zuten eta oso ondo ulertzen zuten bere izaera.



Baina istorioaren bizipen tristeenak ikastolan eta lagunen artean izaten zituen. Ikastolan mutilek ez zuten atsegin nesken gauzak gustaten zitzaizkiola eta beti burlaka ibiltzen zitzaizkion.

- Kaixo "Julene"! Nork ekarriko dituzu eskolara etxean dituzun panpina horiek? - errepikaten zioten gelakideek sarritan.

- Aizu, "Maritxu", loredun soineko batekin guapa egongo zinateke zu.

Horrelakoak egunero entzun behar izaten zituen eta batzuetan negarrez uzten zuten. Neskekin hobetoago sentitzen zen, baina euren sekretuak nesken artean bakarrik kontatzen zituzten eta, noski, haientzako Julen ez zen neska bat.

Gelakideen artean bazegoen hilabete batzuk lehenago Txinatik etorriko neska bat. Ukumi zuen izena eta bera ere ez zegoen oraindik behar bezala intergratuta eskolan. Hala ere, Julenekin ondo konpontzen zen eta adiskide onak ziren.

Ikastolan Juleni gehien gustaten zitzaiona antzerki taldea zen, baina han ere ez zen aske sentitzen. Batzuetan nesken paperak egitea gustatuko zitzaiokeen, baina andereñoak inoiz ere ez zion uzten. Horrek tristura handia sortzen zion. Ukumik sarritan esaten zion:

- Lasai, Julen. Ez duzu zertaz lotsatu beharrik. Izan zaitez zeu,

sentitzen dudana agertu.
-Zurekin nagoenean edota gurasoekin erraza da naizen bezala agertzea zuek ondo ulertzen nauzuelako. Eskolan, ordea, kideen isekak egunerokoak direla badakizu eta irakasleek ere ez dituzte nire sentimenduak ulertzen -erantzun zion Julenek.
Egunak joan, egunak etorri, eskolan ez zuen giro aproposik aurkitzen eta Ukumi zen bere lagun bakarra.
Egun batean andereño berri bat etorri zen eskolara musika eta antzerki klaseak ematera. Gaztea eta oso alaia zen. Gainera, oso argia eta izaera irekikoa zen eta lehenengo egunetik ohartu zen Julenen berezitasunaz eta eskolan bizi zuen egoeraz.

Bere klaseetan musika eta antzerkia lantzeaz gain, ikasleen arteko harremanak hobetzeko saiakerak egiten zituen. Denborak aurrera egin ahala, andereño berriaren irakaspenen eraginez, Julenen gelakideen jarrera aldatzen joan zen. Bere berezitasuna ulertuz eta onartuz, euren arteko jolasetan eta ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zuten. Batzuetan neskekin aritzen zen eta besteetan mutilekin. Gainera, bere poterako, andereñok antzerkietan bere gustuko paperak egitea uzten zion.
Aurrerantzean, etxean zein ikastolan gustura sentitu zen eta Ukumi zein beste lagunekin disfrutatzeko aukera izan zuen.

AMAIERA



L.H. 6. maila

## Maddi Gorostiaga Alzaga

«Niri igeri egitea eta saskibaloian jolastea gustatzen zait»

# Iparralderantz bidaia

IPARRALDERANTZ BIDAIA

Ateak ixtera doaz, mesedez jesarri zure lekuan, Senegaleko aireportuan nago Janelle izeneko Senegaldar batekin. Janelle Euskal Herrira datorren neska bat da, orkatileko hezurra txarto dauka eta sendatzera datorrena. Azal eta begi ilunak ditu baina oso bihotz argia eta ona. Beno, hona nola iritsi naizen kontatuko dizuet. A, oraindik ez naiz aurkeztu, ni Maddi deitzen naiz.

Ni Gizakien Lurra izeneko elkarte bateko laguntzailea naiz, eta gure elkarteak gaixo dauden Senegaldar umeei diegu, eta oraingo honetan Janelleri laguntzen ari gara.

Ni bere bidaia egiten lagunduko dion laguntzailea naiz, eta orain hegazkin barruan gaude. Bere familia orain utzi du eta orduan triste dago. Bilboko aireportuan bere Euskal Herriko familia dauka itxaroten, eta hemen dagoen bitartean ez da bakarrik egongo.



Heldu gara Bilbora. Janelle oso urduri dago, bere familia euskalduna ezagutuko duelako. Heldu da ordua, atearen beste aldean bere familia dago. Janelle oso urduri dago, baina nik lasaitzen laguntzen diot. Ateak ireki dira, eta Janelli irribarre handi-handi bat atera zaio, eta korrika batean bere familiarengana joan da.

Etxera iritsi denean, bazter guztiak arakatzen hasi da. Operatu baino lehenago, Euskal Herrian dagoen bitartean berarekin egongo diren jende guztia ezagutu behar du.

Gaur lehenengo eguna denez, Bilbo ezagutzen arituko gara, bihar medikuarengana joan behar baita, eta horrela gaur erlaxatu egiten da. Lehenengo Bilboko kaleetatik ibilbide bat egingo dugu. Gero, Guggenheimera joango gara, eta azkenik Bilboko alde zaharrera.



Heldu da ordua, Janelle ospitalean dago.

—Urduri nago— esan du Janellek.

—Egon lasai, dena ondo aterako da!— erantzun dio bere guraso euskaldunak.

Egin diote operazioa eta sendatzen dagoen bitartean, min handia dauka hankan, baina lasai dago, zeren eta, momentu batean ere ez dago bakarrik. Beti dago Gizakien Lurra taldeko batekin, hau da, gure taldeko batekin. Momentu honetan Janelle lo dago, eta bere ospitaleko esperientzia kontatuko dizuet: Hasieran, ez zeukan minik hankan baina, egun batzuk pasatuta kriston miña egiten zion. Orain lo dago, baina nik uste dut mina daukalako gelditu dela lo.

Heldu da ordua, Janelle Senegalera doa, oraingoan ere nirekin egingo du bidaia. Heldu gara Senegalera eta Janelle bere familiarekin utzi dut eta orain Euskal Herriratz noa. Heldu naiz Bilbora eta heldu naizen momentu berean, Janellen guraso batek karta bat eman dit, kartak hau zion:

Kaixo, eskerrik asko zuekin egon naizen denbora guztian. Ospitalean oso txarto pasatu nuen, baina zuek eman didazuen maitasunagatik mina ahazten lagundu didazue. Eskerrik asko nirekin egon zareten laguntzaile guztiei. Eskerrik Asko

Janelle

Emozionatu egin naiz eta hortik aurrera udaro joango gara Senegalera Janelle ikustera. LAGUNTZEAK POZTASUN HANDIA EMAN DIT.



## Maialen Blanco

«Nire zaletasunak, eskalada egitea eta lagunekin egotea»

# Lagunak

LAGUNAK

Bazen behin herri txiki batean 5 lagunen koadrilatxo bat; Ane, Aitana, Laia, Ainara eta Noelia ziren haien izenak. 11-12 urteko auzokideak eta lagun onak ziren.

Egunero, egunero batzen ziren ordu eta leku berdinean elkarrekin egoteko baina ez zekiten jolasten; jolastu eta lagunekin ondo pasatzen egon beharrean mugikorrarekin edo gaiztokerietan ibiltzen ziren. Adibidez; leihoetara harriak botatzen, txirrinak jotzen, jendeari burlak, interneten trasteatzen... Ez zuten ezer errespetatzen!!!

Egun batean auzoko batek harrapatu zituen leihoetara harriak botatzen eta bronka bota zien, baina berdin jarraitzen zuten, ez zuten haien jarrera aldatzen.

Anen aitonak esaten zien aintzina ez zegoela mugikorrik baina saskibaloira, eskuteketan, futbolera, sokasaltora... jolasten zutela eta asko disfrutatzen zutela elkarrekin jolasten kalean egonda. Baina inork ez zion kasurik egiten.

Ane izan ezik, denak esan zuten jendeak arrazoia zuela, kasu apur bat egin behar zietela aholkuei, baina Ane ez zegoen ados horrekin eta haserretu egin zen; orduan Ane ez haserretzeko eta lagun bezala ez galtzeko besteek berdin jarraitu zuten. Ez zuten etxeko lanik egiten beti mugikorrak zuelako lehentasuna; Whatsappak, instagramak, facebookak, tik-tokak...

Egun batean beste auzo bateko eskolako bi neska kexatu egin ziren gaiztokerietan zebiltzatelako eta horrela jarraitu ezkero oso txarto amaituko zutela.

Gurasoek bronka bota zieten baina ez zutenez kasurik egiten guztiei mugikorra kendu eta beraiek kontrolatzen hasi ziren aste-betez. Zigor honek erreflexionatzeko aukera eman zien, zeren eta momentu honetan arauak ere ez zituzten betetzen.

Mugikorrik gabeko aste horretan saskibaloian, ikusi makusian, futbolean, eskutaketan... jolasteari ekin zioten oso gustora.

Ikasi zuten mugikorra ez zela ongi pasatzeko tresna bakarra, jendea ondo tratatu ezkero gauza gehiago lortzen zirela eta nahiz eta ez gustatu arauak arauak direla eta errespetatu egin behar direla.



L.H. 6. maila



## Julen Villegas Ramirez

«Zenbat gozatzen dudan bideo jokoetara jolasten!»

# Hawaiko altxorra

HAWAIKO ALTXORRA

Bazen behin, Jon izeneko mutil bat. Jon gurasoekin bizi zen. Uztailaren 13an, Jonen urtebetetze eguna zen eta bere gurasoek, zera oparitu zioten: Hawairako urte beterako bidaia. Jonek ezin zuen aitonari esan gabe egon eta irrikaz eta ilusioz kontatu zion. Aitona, urte mordoa egon baitzen Hawaiin lanean eta bertan, Kilauea deituriko bolkan misteriotsu bat zegoela aipatu zion.

-Aitona, misteriotsua zergatik? -galdetu zion ilobak.

-Bolkan haren inguruan altxor bat dagoelako ezkutuan. -erantzun zion aitonak.

Aitonak, orduan, altxorraren mapa eman zion oparitzat. Jon, momentu hartan, inoiz baino zoriontsuago sentitzen zen, izan ere, bere ametsa betetzea lortu baitzuen. Gurasoek ez zien sinisten altxorraren kontu hura baina Jonek esperantza handia zuen altxor hura aurkitzeko!



Aireportura joan ziren eta han, bidaien panelera begira jarri ziren. Hamaikako hegaldiak noiz irtengo zuen jakiteko. Aurkitzean, maletak hartu eta fakturatzera abiatu ziren. Jonek motxila bat zeukan baina ez zuen fakturatu nahi, mapa ondo aztertu nahi zuelako hegaldi luze hartan. Hegazkinera sartu aurretik, hegazkineko ateak zabaldu arte, banku batean zain geratu ziren eta gizontxo bat jesarri zen Jonen ondoan. Berak ere, berea bezalako motxila zuen, kolore berdinekoa. Hegazkinera sartu aurretik, osteratxo bat egin zuen komunera. Ondoren, motxila hartu eta hegazkinera igo zen.

Hegaldian zehar, mapa aztertzeko asmotan zegoen baina... hara! komunetik bueltan, beste gizonaren motxila hartu zuela konturatu zen! Badaezpada, ea jabearen daturik daukan ikusi zuen motxilan zehar, telefono zenbakia edo... baina ez zegoen datu bat bera ere. Jon, oso goibel jarri zen, aitonaren oparia galdu zuela ikustean. Orduak joan orduak etorri, Jonen amak dei bat jaso zuen; bere motxila zuen gizona baitzen! Eskerrak Joni motxilan bere gurasoen telefono zenbakia eta jartzea burutatu zitzaion. Heldu zen Kiluea bolkana ezagutzeko eguna. Bertan, gidari batek, bertako istorio guztiak azaldu zizkien. Jonek atentzio handiz entzuten zituen gidari haren azalpenak. Halako batean Jonek zera erantzun zuen:

-Jon, Jon, Jon! Esna zaitez Jon! Berandu gabiltza-eta! -Jonen aitak oihukatu zion.
-Ametsetan nengoen aita! Barka!





L.H. 6. maila

## Naia Etxebarria Uria

«Inor ez dugu baztertu behar gure modukoa ez bada»

# Jostailuak

Bazen behin Olatzen logelan, Lego lurraldea, non denak lego panpinak ziren. Bertan Eiden izeneko neska bat bizi zen, oso neska alaia, sentibera eta atsegina. Normalean gonak janzten zituen, urdin kolorekoak eta zapatila marroiak. Bere ilea oraila zen urrea bezalakoa eta bere begiak itsasoa bezain urdinak ziren.

Lego lurraldean arau bat zegoen: Legotarrek ezin zutela Lego ez zen beste inorekin harremanik eduki. Orduan denek beti berdina egiten zuten: gosaldu, lanera joan, bazkaldu, lanetik bueltatu, afaldu eta ohera. Eiderrek ez zuen hori egiten.

Berak gosaldu eta Lego lurraldetik kanpo joaten zen jolastera eta lagun berri asko egiten zituen: June izeneko barbie bat, Malen izeneko hartz bat, Elene izeneko mediku panpin bat... Beti biltzen ziren elkarrekin jolasten. Eiderrek bazekien arauak hausten zebiela, baina berdin zitzaion, oso ondo pasatzen zuelako lagunekin, eta Lego lurraldean aspertu egiten zelako.

Behin, bere laguna zen Beñat izeneko Lego batek, jarraitu egin zuen Eider nora zihoan jakin nahian. Beñatek den-dena ikusi zuen: nola Eider Legotarrak ez ziren hartz eta mediku panpin batekin jolasten zuen. Beñat arduratu egin zen arauak hausten zegoelako, eta Eiderri kasurik ez egitea erabaki zuen, esiztituko ez balitz bezala, arazoetan ez sartzeko.



Hurrengo egunetan Eider nahiko bakarrik sentitzen hasi zen Lego lurraldean inortzok ez ziolako kasurik egiten. Egun batean Eider esnatu eta jende pila ikusi zuen kalean gizon baten inguruan. Hurbildu egin zen zer gertatzen zen ikustera eta a ze sorpresa Beñat zen!! Patinetearekin istripu txiki baten ondoren hanka apurtuta zuen. Eiderri ideia zoragarri bat burruatu zitzaion, Elene medikuari deitzea. Pentsatu eta egin: Korrika joan zen Lego lurraldetik kanpora Elene mediku panpinaren bila. Bere lagun Elene aurkitu bezain pronto bere lagun Beñatek izandako istripua kontatu zion, baita hanka apurtuta zuela ere. Hori entzun eta segituan joan ziren Lego lurraldera Beñat laguntzera. Beñat zegoen lekura heldu zirenean Legotarrek harrituta begiratzen zieten Eider eta Elene panpinari. Elene ez Legotarra.

Elene mediku panpinak lortu zuen Beñaten hanka sendatzea eta Legotarrak asko poztu ziren Beñat sendatuta ikustean. Eider legotarrak arau bat apurtu zuen, baina horri esker Beñat sendatu zen.

Orduan Legotarrak konturatu ziren beste panpin edo jostailuekin ez harremantzeko araua txorakeria hutsa zela. Orduz geroztik panpin eta jostailu guztiak elkarrekin bizi dira Olatzen logelan.





Irati Berridi
«Saskira jolastea gustatzen zait»

# Agatha ordenagailuan harrapatuta

Bazen behin, neska bat Agatha izenekoa. Jaka henian bizi zen eta oso alaia zen, baina denbora guztian ordenagailuarekin jolasten ibiltzen zen. Egun batean, ordenagailu barruan geldituta zen ezin irten, orduak eta orduak jolasten ematen zituelako.



Artelanez beteriko gela batean agertu zen, dena margolanez beterik, baina margolan batean irudi bat egon beharrean zerbait idatzita agertzen zen eta hau zioen: "Hiru ate, hiru kolore, baina morea ez". Orduan, gela berean zeuden hiru ateetara hurbildu eta hiru kolore hauek ziren: 1. gorria, 2. urdina eta 3. berdea. Agatha konturatu zen gorria eta urdina nahastean morea irteten zela eta



ate berdetik sartzea erabaki zuen. Sartzean, musika gela batean agertu zen eta gela erdian mahai baten gainean musika kaxa bat zegoen eta pentagramadun orri batean, hiru ate irudikatuta: 1. beltza, 2. zuria eta 3. laranja. Hiru ateak musika gelan zeuden. Musika

kaka nartzan jani eta lau nota entzuten ziren: "Mi, fa, si, fa". Orduan lau notak pentagramadun orrian marraztu zituen eta lau noten artean



gurutze bat egin zuen. Jarraian, gurutze erdian ate zuria zegoen eta ate horretatik sartu zen. Bertan mago bat zegoen eta berarekin hitz egiten hasi zen. Odlock deitzen zela jakin zuen eta Odlockek esan zion:

-Asmakizun bat kontatuko dizut eta erantzuna asmatzen baduzu jolasetik irtetea lortuko duzu, baina ez baduzu erantzuna asmatzen betiko gelditu beharko zara gaztelean.



Honela zion asmakizunak:
"Amak bi ditu, aitak beste bi, alabak hiru eta semek bat ere ez".
Agatha pentsatzen hasi eta horela erantzun zuen:
-"A" letra da erantzun zuzena.
Odlockek honela erantzun zion:
-Bai, Agatha erantzuna asmatu duzu eta gaztelutik irten ahal izango duzu. Agur Agatha eta hurrengo arte.
Agathak esan zuen:
-Agur Odlock eta ikusi arte.

Agatha gaztelutik irten zenean ordenagailua alde batera uztea eta lagunekin jolasten joatea

pentsatu zuen. Eta horrela egin zuen, ordenagailua alde batera utzi zuen denbora batez eta lagunekin jolasten hasi zen.





GERNIKA LUMO

gure sustraiak

**GERNIKA-LUMOKO UDALA**

Hezkuntza Saila

Euskera Zerbitzua

gernika-lumoko euskara zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

**KULTURA SAILA (HPS)**

Bizkaia

foru aldundia